



ERRENDERIKO "ORERETA" IKASTOLAREN PAUSOAK URTIAK ZEAR

Bittor

Aurtengo Uda-Berriko lenengo igandean, gurea degun Añabitarte basetxe eta lurraldetan jaso eta erekitako ikastetxe berri baten zabalkundea ospatu degu.

Etxe berri au jasotzearekin esan genezake, oraingoz beintzat, gure Ikastolak asi aurtzaro edo eskol-aurre, E. G. B. ko bi mallak, B. U. P. eta C. O. U. au da; Unibersidade arteko ikasketa osatzen duten ikasturte edo kurso danak emateko gela eta legeak eskatzen dituan gañontzeko lekuz ornituta arkitzen dala.

Egun au gogoangarriya izan zan bertan arkitzen giñanontzat, bati bat Ikastola sortutako lenengo urte aietatik gaurko egunean ikusten degun mallara jasotzeko nola bait ere beren laguntza eskeñi eta eman duten ainbeste gizon eta emakumentzat.

Gañera egun oni ospe eta itzal bereziya eman zion beste gertaera pozgarri bat ikusi genduan gure begi aurrean. Zeñek esan bear zigun guri, orain dala urte batzuk, Ikastola osatzen duan etxe berri baten zabalkundera, gure Erriyak aukeratutako Euzko Jaurlaritzako Lendakari, Ezikerako Jaurlari, Gipuzkuko Foru Aldundiko Buru eta beste ainbat lagun jai au goralteza etorri eta emen gure artean arkituko gendituanik?

Orrela bada, egun ontako gertakizunak eraginda; 1963 garren urtean sortu zan Ikastola ura gaur milla ta seireun ikasle artzera iristeko eman bear izan dituan zenbait pauso, asieran esan bezela, agertzen saiatuko naiz, urtiak zear ain bearrezko ziran leku eta gela, ain oparo utzi eta eman zituzten lagun eta adiskide, Erriyak gogoan artu eta euki ditzan.

IKASTOLAK EMAN DITUAN IKASTARO EDO KURSOAK

Ikastaroak	Ikasle	Irakasle	Ikas Lekuak
1963/64	20	1	Pio Etxeberría'nean Orereta 1
1964/65	60	2	Parroki Etxean Malen Kale 18
1965/66	105	3	Parroki Etxean Malen Kale 18
1966/67	150	5	Parroki Etxe eta Mujika-Lahayen Kontratistanean Yantzi-Kale 5
1967/68	200	7	Mujika-Labayen Yantzi-Kale 5
1968/69	250	8	Mujika-Labayen Yantzi-Kale 5 Aita-Kaputxino'en Pake-Tokin
1969/70	300	10	Mujika-Labayen eta Pake-Tokin
1970/71	370	12	Pake-Tokin eta Felix Oyarbide Kontrata'nean J. Olazabal Kalea 23
1971/72	440	15	Pake-Toki eta F. Oyarbide Olazabal 23
1972/73	510	18	Pake-Toki eta F. Oyarbide Olazabal 23
1973/74	615	23	Felix Oyarbide Olazabal 23 eta Iztietako Ibai-alde'n eta Ospitalen
1974/75	720	25	F. Oyarbide Olazabal 23 eta Uda-berrian lenengoz Añabitartean
1975/76	830	29	Olazabal-Kalea 23 eta Añabitarte
1976/77	1005	41	
1977/78	1180	49	
1978/79	1355	58	Emen Ikusten dan bezela, urte auetako kursoak bai kaleko gela (Olazabal 23) eta Añabitarten ematen Ditutze
1979/80	1530	68	
1980/81	1600	76	

Aurrera jarraitu aurretik, emen azaltzen dan errezkadan aipatu gabe Ikastolak ibilli dituan beste iru leku gelditu dira: Iztietako Parrokiak eliz gañean dituan lau gela, On-Bide zinean Parroki Nagusiarenak eta oraindik ere erabiltzen dituan Goiko-Monjak dituztenak. Uste det besteakin batean gogoan artu bearrekoak dirala.

Ikastolak bere emezortzi urte auetan beste makiña bat gora-bera ikusi eta igaro bear izan ditu. Nere iritzian esango nuke, besteak beste, bere buru jabetza eta aurrera jarraitze-ko indar eta itxaropena bereziki eman diotenak, bai 1971garren urtean Olazabal kaleko Ikastola eta 1973 garrenean Añabitarte baserriaren jabe egiteak izandu dirala.

Aurtengo "Oarso" egiterakoan, gayari buruz, 1963 garren urtean agertu zanak, urte aietan eta gero ere kanpotik zetorren ainbeste lagunek erriyari sortzen zizkion problema eta eziñak agertzen zituala. Egia da eta ez noski txikiena eskolik ezarena. Ez dut esan nai, ain zuzen, Ikastola urte artan sortzearekin arazo ori erabat konpondu zanik, baño ezin ukatuko dute beintzat lan ori arintzeko alegiñik egin etzuteanik.

Dana dala, emen agertzen diran lerro auk garbi agertzen dute, orain ez ezik aurreagoko urtetan ere ERRIARI eta batez ere bere ezaugarririk bikañena dan IZKUNTZARI beren eskeintza eta lana eman dioten erritar asko izan dituala eta gerora ere gure XENPELARREKIN esan dezagun "Jayoko dira berriak...".

